



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2019ko uztailaren 4a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ) eta Amaia Gozategi Urbieto (EAJ) zinegotziek adierazi dute ezin zutela etorri eta, beraz, ez dute bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2019ko ekainaren 15eko udalbatzarra eratzeko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, udalbatzarraren ohiko bilkuren maiztasuna.
- 3.- Onartzea, egoki bada, alkate eta zinegotzien liberazioak eta dagozkien ordainsariak.
- 4.- Onartzea, egoki bada, alkatearen proposamena batzorde informatzaile iraunkorrak eratzeari buruz eta horien osaketari buruz.
- 5.- Onartzea, egoki bada, alkatearen proposamena udalbatzarreko kideen erregimen ekonomikoari buruz.
- 6.- Onartzea, egoki bada, udalbatzarreko ordezkarien izendapena Udalak ordezkatuta egon behar duen organo kolegiatu guztietan.
- 7.- Alkateak hainbat izendapeni buruz hartutako erabakien berri ematea: alkateordeak, gobernu batzarkideak, batzorde informatzaile iraunkorren buruak eta dagozkion delegazioak.
- 8.- Adjudikatzea, egoki bada, honako obra-kontratua, prozedura ireki sinplifikatu bidez: Orioko Aritzaga kaleko, Endaia kaleko eta Herriko Plazako lurpeko azpiegiturak berritzeko eta berrurbanizazio-lanak egiteko proiektua.
- 9.- Onartzea, egoki bada, kontratazio-espedienteen kontratazio-mahaiaren osaketa, kontratazio-organoa udalbatzarra denean.
- 10.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2019KO EKAINAREN 15EKO UDALBATZARRA ERATZEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, zirriborroari inork inolako oharrik egiten ez dionez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 2019ko ekainaren 15eko udalbatzarra eratzeko bilkuraren akta.



2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN OHIKO BILKUREN MAIZTASUNA.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2-a) artikulua ezarritakoa betez, alkateak proposatu du udalbatzarraren ohiko bilkurak hilero egitea, hilaren azken ostegunean, 19:30ean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren ohiko bilkurak hilero egitea, hilaren azken ostegunean, 19:30ean.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATE ETA ZINEGOTZIEN LIBERAZIOAK ETA DAGOZKIEN ORDAINSARIAK.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua ezartzen du udalbatzako kideek eskubidea dutela ordainsariak jasotzeko beren kargua betetzeagatik, bai dedikazio eskusiboan eta bai partzialean; kasu horretan alta emango zaie Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean, eta udalbatzak bere gain hartuko du enpresari dagozkion kuoten ordainketa. Ordainsariak finkatzeko, honako araua hartu behar da kontuan: 1/2015 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-udalbatzetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehazten dituen.

Ondorioz, alkateak proposatzen du:

- Berak dedikazio eskusiboan betetzea alkate kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 24. mailarekin (urteko zenbatekoa: 55.422,78 euro).
- Ainara Munduate Iguaran zinegotziak (EH Bildu) %50eko dedikazio partzialarekin betetzea lehen alkateorde eta batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa: 23.994,67 euro).
- Bakarne Oriden Albeniz (EH Bildu) %25eko dedikazio partzialarekin betetzea bigarren alkateorde eta bi batzordeetako buru kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa: 11.997,34 euro).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



1.- ONARTZEA ANUSKA ESNAL OLIDENek dedikazio eskusiboan betetzea alkate kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 24. mailarekin (urteko zenbatekoa: 55.422,78 euro).

2.- ONARTZEA AINARA MUNDUATE IGUARANEk (EH Bildu) %50eko dedikazio partzialarekin betetzea lehen alkateorde eta Hirigintza batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa: 23.994,67 euro).

3.- ONARTZEA BAKARNE OLIDEN ALBENIZEk (EH Bildu) %25eko dedikazio partzialarekin betetzea bigarren alkateorde eta Sektoreak, Turismoa eta Merkataritza batzordearen eta Euskara eta Hezkuntza batzordearen buru kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa: 11.997,34 euro).

4.- Beren karguak dedikazio eskusiboan eta partzialean beteko dituzten hiru udalbatzakeideei alta emango zaie Gizarte Segurantzako Erregimenean eta Udalak hartuko du bere gain enpresari dagozkion kuoten ordainketa.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRAK ERATZEARI BURUZ ETA HORIEN OSAKETARI BURUZ.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1-c) artikulua honakoa dio, hitzez hitz: *5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan (...) beste organo batzuk egongo dira, osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertu, horien gainean txostena egin zein horietaz aholkua emateko, eta alkatearen, tokiko gobernu-batzarraren eta eskuordetzan emandako eskumenak dituzten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egiteko, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenen aurka jarri gabe. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek izango dute aipatutako organoetan parte hartzeko eskubidea, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda, osoko bilkuran duten zinegotzi-kopuruaren arabera.*

Ondorioz, alkateak honako batzorde informatzaile iraunkorrak osatzea proposatzen du:

- Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzailea.
- Ingurumena, Obrak eta Zerbitzuak batzorde informatzailea.
- Hirigintza batzorde informatzailea.
- Kultura, Gazteria eta Festak batzorde informatzailea
- Sektoreak, Turismoa eta Merkataritza batzorde informatzailea.
- Kirol batzorde informatzailea.



- Berdintasuna eta Gizarte Ongizatea batzorde informatzailea.
- Euskara eta Hezkuntza batzorde informatzailea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA honako batzorde informatzaile iraunkorrak osatzea:

- Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzailea.
- Ingurumena, Obrak eta Zerbitzuak batzorde informatzailea.
- Hirigintza batzorde informatzailea.
- Kultura, Gazteria eta Festak batzorde informatzailea.
- Sektoreak, Turismoa eta Merkataritza batzorde informatzailea.
- Kirol batzorde informatzailea.
- Berdintasuna eta Gizarte Ongizatea batzorde informatzailea.
- Euskara eta Hezkuntza batzorde informatzailea.

2.- ONARTZEA Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorren osaketa. Batzordeak honela osatuta geratuko dira:

OGASUNA ETA PERTSONALA BATZORDE INFORMATZAILEA.

Ordezkaritza titularrak: Anuska Esnal Oriden (EH Bildu), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN).

Ordezkaritza ordezkoak: Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu) eta Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ).

INGURUMENA, OBRAK ETA ZERBITZUAK BATZORDE INFORMATZAILEA.

Ordezkaritza titularrak: Beñat Solaberrieta Albizu (EH Bildu), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN).

Ordezkaritza ordezkoak: Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu) eta Andoni Torres Fernandez (EAJ).

HIRIGINTZA BATZORDE INFORMATZAILEA.

Ordezkaritza titularrak: Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN).



Ordezkarari ordezkioak: Beñat Solaberrieta Albizu (EH Bildu) eta Andoni Torres Fernandez (EAJ).

KULTURA, GAZTERIA ETA FESTAK BATZORDE INFORMATZAILEA.

Ordezkarari titularrak: Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu), Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN).

Ordezkarari ordezkioak: Bittor Andres Alkorta (EH Bildu) eta Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ).

SEKTOREAK, TURISMOA ETA MERKATARITZA BATZORDE INFORMATZAILEA.

Ordezkarari titularrak: Bakarne Oliden Albeniz (EH Bildu), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN).

Ordezkarari ordezkioak: Beñat Solaberrieta Albizu (EH Bildu) eta Andoni Torres Fernandez (EAJ).

KIROL BATZORDE INFORMATZAILEA.

Ordezkarari titularrak: Bittor Andres Alkorta (EH Bildu), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN).

Ordezkarari ordezkioak: Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu) eta Andoni Torres Fernandez (EAJ).

BERDINTASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA BATZORDE INFORMATZAILEA.

Ordezkarari titularrak: Anuska Esnal Oliden (EH Bildu), Amaia Gozategi Urbietta (EAJ), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN).

Ordezkarari ordezkioak: Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu) eta Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ).

EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEA.

Ordezkarari titularrak: Bakarne Oliden Albeniz (EH Bildu), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN).

Ordezkarari ordezkioak: Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu) eta Amaia Gozategi Urbietta (EAJ).

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA UDALBATZARREKO KIDEEN ERREGIMEN EKONOMIKOARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarrak, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Ibarguren (EH Bildu), Solaberrieta (EH Bildu), Oliden (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Priede (PSE-EE-PSOE) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Salsamendi (EAJ) eta Gomez de Segura (EAJ), guztira **BI KONTRAKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA Orioko udalbatza osatzen duten talde politikoen diru-izendapen finkoa (350 euro hileko, talde politiko bakoitzarentzat), eta diru-izendapen aldakorra (25 euro zinegotziko eta hileko).

2.- ONARTZEA Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorretako buruen diru-izendapena: 150 euro hileko, batzordeburu bakoitzak.

3.- ONARTZEA Orioko Udaleko Bozeramaileen Batzordeko kideen diru-izendapena: 250 euro hileko, kide bakoitzak.

4.- ONARTZEA 100 euroko diru-izendapena zinegotzi bakoitzari, udalbatzarrean parte hartzen duten aldi bakoitzeko.

5.- ONARTZEA 50 euroko diru-izendapena zinegotzi bakoitzari, batzorde informatzaileetako bilkuraren batean parte hartzen duten aldi bakoitzeko. Nolanahi ere, beren kargua dedikazio oso edo partzialik gabe betetzen duten zinegotzi guztiek bermatuta izango dute 200 euroko gutxieneko diru-izendapena.

6.- Beren kargua dedikazio oso edo partzialarekin betetzen duten udalbatzakideek ez dituzte goiko konpentsazio ekonomikoak jasoko.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta hau adierazten du emandako botoa azaltzeko: bere talde politikoa kontrako botoa eman du ez dagoelako ados talde politikoen eta zinegotzien diru-izendapenekin; zinegotziko eta hileko onartu den 25 euroko diru-izendapenarekin irabazian ateratzen dira PSE-EE-PSOE eta Orain taldeak, zeren eta, kontuan hartuta talde politiko bakoitzak 350 euroko diru-kopuru finkoa jasoko duela hileroko, zinegotziko diru-izendapena txikia izanda, azkenean, talde politikoei oso kopuru antzekoak jasoko dituzte, zinegotzi gehiago izan ala gutxiago izan: EH Bildu taldeak, esaterako, 6 zinegotzi ditu eta 500 euro jasoko ditu hileroko; EAJ taldeak, berriz, 5 zinegotzi ditu eta 475 euro jasoko ditu; eta PSE-EE-PSOE eta Orain taldeak, berriz, zinegotzi banarekin, 375 euro bana jasoko dituzte. Hori ez da zuzena, EAJren ustez, eta irizpide horien aplikazioa «zigor» moduko bat da talde politiko handientzat.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du, maiatzaren 26ko udal-hauteskundeetan izandako emaitzak kontuan hartuta, EH Bildu talde politikoa planteamendu berritzaile bat egin ziela Udala osatzen duten talde politikoei eta aukera eman ziela guztiei liberazioak eta dedikazioak hartzeko. Eredu berri hori, bere ustez, udalbatzakide guztien onerako da eta horretan oinarritu da, hain zuzen ere, EH Bilduk, PSE-EE-PSOE eta Orainek adostu duten akordioa.



Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du EH Bilduk batzorde informatzaile baten presidentzia eskaini ziola EAJri; baina diru-izendapenak banatzeko irizpideekin eta, bereziki, zinegotzi bakarreko taldeen lan-karga handiagoaren irizpidearekin ados ez daudenez, EAJk uko egin diola.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du ez dagoela negoziatu nahi ez duena baino negoziatzaile txarragorik; eta, bere ustez, EAJk ez duela izan negoziatzeko borondaterik. Alkatearen proposamenak ez dira «hartu ala uztekoak», baizik-eta negoziatu egin behar dira: «nik amore ematen dut, zuk amore ematen duzu». Anak dio, bestalde, EAJri Turismo batzordearen buru izatea proposatu zitzaiola.

Lan-kargari buruz, berriz, Ana Priede zinegotziak dio 2015-19 agintaldiko lau urteak eskarmentua hartzeko balio izan diotela. PSE-EE-PSOE talde politikoaren ordezkari bakarra izan denez, zortzi batzorde informatzailetan parte hartu behar izan du eta, hori alderatzen bada EAJri eskaini zaion Turismo batzordearen presidentziarekin, begibistakoa da alde handia dagoela lan-kargan. Anak uste du EAJk kontrako botoa ematearen arrazoia ezin daitekeela izan lan-kargaren irizpidea, baizik-eta, besterik gabe, diru-izendapenei buruzko desadostasuna, zeren eta, lan estrari buruz hitz egiten duenean, momentu jakin batzuetan gertatzen denaz ari baita: udal-aurrekontuen onarpenean, ordenantza fiskalen onarpenean...

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, Orain taldearen izenean, eta adierazten du bere talde politikoa bat datorrela EH Bilduk talde politikoen eta zinegotzien diru-izendapenak onartzeko proposatu duen formula iraultzailearekin. Adierazten du ulertzen dituela EAJk kontrako botoa emateko azaldutako arrazoiak eta Orain taldea prest dagoela diru-izendapen horiek murrizteko ere; baina gogorarazten dio Lourdes Salsamendiri, edozein negoziaziotan, amore emateko prest egon behar dela.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARREKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA UDALAK ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANO KOLEGIATU GUZTIETAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ANUSKA ESNAL OLIDEN alkatea (EH Bildu) eta LOURDES SALSAMENDI GOÑI zinegotzia (EAJ) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordean.

2.- AINARA MUNDUATE IGUARAN lehen alkateordea (EH Bildu) eta ANDONI TORRES FERNANDEZ zinegotzia (EAJ) Orioko Udalaren ordezkari ordezkari **IZENDATZEA** Urola Kostako Udal Elkartearen Zuzendaritza Batzordean.



3.- ANUSKA ESNAL OLIDEN alkatea (EH Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** Urola Kostako Mendi Nekazaritzako Elkartean (URKOMEn).

4.- ANUSKA ESNAL OLIDEN alkatea (EH Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** Gipuzkoako Ur Partzuergoan.

5.- ANUSKA ESNAL OLIDEN alkatea (EH Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** EUSKAL FONDOAREN Batzar Nagusian.

6.- BAKARNE OLIDEN ALBENIZ (EH BILDU), LOURDES SALSAMENDI GOÑI (EAJ), ANA PRIEDE MERCHAN (PSE-EE-PSOE) eta JOSE ANGEL IPARRAGIRRE ALBERDI (ORAIN) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA).

7.- ANUSKA ESNAL OLIDEN alkatea (EH Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** Udalbiltza partzuergoan.

8.- ANUSKA ESNAL OLIDEN alkatea (EH Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** goian propio aipatu ez den eta Udalaren ordezkaritza behar duen beste edozein organotan.

7.- ALKATEAK HAINBAT IZENDAPENI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA: ALKATEORDEAK, GOBERNU BATZARKIDEAK, BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN BURUAK ETA DAGOZKION DELEGAZIOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Alkateak, 2019ko uztailaren 2ko ebazpenaren bidez, lehen alkateorde izendatu zuen AINARA MUNDUATE IGUARAN, Udalean ordezkaritza daukan EH Bildu talde politikoko zinegotzia, toki-araubidearen alorrean indarrean dauden xedapenek ematen dizkieten eskumen eta eskubideekin.

Alkateak, 2019ko uztailaren 2ko ebazpenaren bidez, bigarren alkateorde izendatu zuen BAKARNE OLIDEN ALBENIZ, Udalean ordezkaritza daukan EH Bildu talde politikoko zinegotzia, toki-araubidearen alorrean indarrean dauden xedapenek ematen dizkieten eskumen eta eskubideekin.

Alkateak, 2019ko uztailaren 2ko ebazpenaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatu zituen AINARA MUNDUATE IGUARAN, BAKARNE OLIDEN ALBENIZ eta BEÑAT SOLABERRIETA ALBIZU zinegotziak.

Alkateak, era berean, honako udalbatzakideak izendatu zituen Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorretako buru:

- **ANUSKA ESNAL OLIDEN (EH Bildu):** Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzaileko presidente titularra.



Ordezkoa: Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu).

- **BEÑAT SOLABERRIETA ALBIZU (EH Bildu):** Ingurumena, Obrak eta Zerbitzuak batzorde informatzaileko presidente titularra.

Ordezkoa: Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu).

- **AINARA MUNDUATE IGUARAN (EH BILDU).** Hirigintza batzorde informatzaileko presidente titularra.

Ordezkoa: Beñat Solaberrieta Albizu (EH Bildu):

- **XABIER IBARGUREN AZKUE (EH Bildu):** Kultura, Gazteria eta Festak batzorde informatzaileko presidente titularra.

Ordezkoa: Bittor Andres Alkorta (EH Bildu).

- **BAKARNE OLIDEN ALBENIZ (EH Bildu):** Sektoreak, Turismoa eta Merkataritza batzorde informatzaileko presidente titularra.

Ordezkoa: Beñat Solaberrieta Albizu (EH Bildu):

- **JOSE ANGEL IPARRAGIRRE ALBERDI (ORAIN):** Kirol batzorde informatzaileko presidente titularra.
- **ANUSKA ESNAL OLIDEN (EH Bildu):** Berdintasuna eta Gizarte Ongizatea batzorde informatzaileko presidente titularra.

Ordezkoa: Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu).

- **BAKARNE OLIDEN ALBENIZ (EH Bildu):** Euskara eta Hezkuntza batzorde informatzaileko presidente titularra.

Ordezkoa: Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu).

Udalbatzarrak, azkenik, jakiten du Bozeramaileen Batzordea eratu dela eta Udala osatzen duten talde politiko guztien bozeramaileek osatuko dutela, hau da:

- Anuska Esnal Oiden (EH Bildu)
- Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ)
- Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE)
- Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN)

Bozeramaileen Batzordeak hilaren lehenbiziko ostiralean egingo ditu bilkurak, 10:00etan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.



8.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, HONAKO OBRA-KONTRATUA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ: ORIOKO ARITZAGA KALEKO, ENDAIA KALEKO ETA HERRIKO PLAZAKO LURPEKO AZPIEGITURAK BERRITZEKO ETA BERRURBANIZAZIO-LANAK EGITEKO PROIEKTUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Ezarritako epearen barruan, ondorengo hiru lehiatzaile hauek aurkeztutako proposamenak aurkeztu dira:

1.- CONSTRUCCIONES MOYUA, SA

2.- UTE: ALTUNA Y URIA, SA – VIUDA DE SAINZ, SA

3.- UTE: CONSTRUCCIONES ZUBIEDER, SL – CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA, SL

Kontratazio Mahaiak, udal zerbitzu teknikoek emandako balorazio txosten teknikoa aintzat hartuz, honako hau proposatzen du: Orioko Aritzaga kaleko, Endaia kaleko eta Herriko Plazako lurpeko azpiegiturak berritzeko eta berrurbanizazio lanak egiteko proiektu teknikoaren arabera exekutatzeko kontratua **UTE: ALTUNA Y URIA, SA – VIUDA DE SAINZ, SA** sozietate merkantilari adjudikatzea, bere proposamena izan delako puntuaziorik altuena lortu duena Baldintza Administratibo Partikularretan ezarritako irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- UTE ARITZAGA ORIO LEY 18 1982 (ALTUNA Y URIA, SA eta VIUDA DE SAINZ, SAk eratua) sozietate merkantilari **ADJUDIKATZEA** Orioko Aritzaga kaleko, Endaia kaleko eta Herriko Plazako lurpeko azpiegiturak berritzeko eta berrurbanizazio lanak egiteko proiektu teknikoaren arabera exekutatzeko kontratua. Adjudikazioaren prezioa 1.309.958,65 eurokoa da, eta horri %21eko BEZaren 275.091,32 euro gehitu behar zaizkio (gastu orokorrak eta mozkin industrialak barne).

2.- JAKINARAZTEA erabaki hau enpresa lizitatzailerik guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege-errekurtsoak azalduz.

3.- ARGITARATZEA erabaki hau Orioko Udalaren kontratatzailearen Profilean.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KONTRATAZIO-ESPEDIENTEEN KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAKETA, KONTRATAZIO-ORGANOA UDALBATZARRA DENEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA kontratazio-espedienteen kontratazio-mahaiaren osaketa, kontratazio-organoa udalbatzarra denean. Kontratazio-mahaia honela osatuko da:

- Presidente titularra: Anuska Esnal Oliden, alkatea.
- Presidente ordezkoa: Ainara Munduate Iguaran, lehen alkateordea.
- Mahaikide titularra: Jon Carrera Jauregi, idazkari-kontu-hartzailea.
- Mahaikide titularra: Pilar Azurmendi Etxegarai, udal-arkitektoa.
- Mahaikide ordezkoa: Amaia Usandizaga Manterola udal-arkitekto teknikoa.
- Idazkaria: Ibai Lertxundi Iribar, udal-idazkaritzako teknikari juridikoa.
- EAJ, Orain eta PSE-EE-PSOE talde politikoetako ordezkari banak kontratazio-mahaiko bilkuretan parte hartzeko eskubidea izango du, ahotsarekin baina botorik gabe.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza eta azaltzen du zergatik ez diren etorri udalbatzarraren bilkura honetara EAJko hiru zinegotzi hauek: Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua eta Amaia Gozategi Urbietak.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza eta galdetzen du ea noiz hasiko diren Aritzaga-Herriko Plaza-Endaia inguruko obrak. Alkateak erantzuten dio, esanez Obra eta Zerbitzuak batzordeko hurrengo bilkuran emango dela dagokion informazioa gaiari buruz.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,